



OROREN BIDAIAKO LAGUNTZAREN BALDINTZA OROKORRAK

ERAKUNDE ASEGURU-HARTZAILEAK EMANDAKO KREDITU-TXARTELEN TITULARRENTZAKO BIDAIAKO LAGUNTZA-ASEGURUAREN BALDINTZEN LABURPENA. LABURPEN HONEN HELBURUA INFORMATZEA BESTERIK EZ DA, ETA, BERAZ, EDOZEIN GATAZKA EDO AUZI ARGITZEKO, POLIZAREN BALDINTZA OROKORRETAN, PARTIKULARRETAN ETA BEREZIJAN JASOTAKORA JO BEHARKO DA.

ASEGURU HONEN BERMEARI ATXIKITAKO ZERBITZUAK EMATEKO, EZINBESTEKOA DA ASEGURATUAK ASEGURATZAILEAREN ESKU-HARTZEA ESKATZEA, GERTAERAREN LEKUTIK. MEDIKUNTZAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN GAJETARAKO, PARTEAREN BERRI EMATEKO 7 EGUN IZANGO DITU, GEHIENEZ, BIDAIA AMAITZEN DEN EGUNETIK ZENBATZEN HASITA. DEITU BEHARREKO TELEFONOA EGUNEKO 24 ORDUETAN EGONGO DA ESKURA (HARTZAILEAK ORDAINTZEKO DEIA ERE EGIN DAITEKE; GALDETU OPERADOREARI).

+34 91 3907373

AURRETIKO XEDAPENAK

ASEGURATZAILEA: IMA IBÉRICA SEGUROS Y REASEGUROS SA (helbidea: Julián Camarillo kalea 29, 28237 – Madril; IFK: A-78689726), kontratu bidez hitzartutako arriskua bereganatzen duen pertsona juridikoa. Aseguratzaile horrek Espainiako agintarien zaintzapean eta kontrolpean —Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez— garatzen du bere jarduera, eta C0709 erregistro-gakoarekin dago inskribatuta.

HARTZAILEA: CAJA LABORAL POPULAR SOCIEDAD COOPERATIVA DE CRÉDITO —aurrerantzean, LABORAL Kutxa—.

POLIZA: TOR

HASIERA-DATA ETA MUGA-EGUNA: 2024-01-01EKO 00:00ETATIK 2025-12-31KO 24:00ETARA.

ASEGURATUA: Ohiko bizilekua Espainian duen pertsona fisikoa, LABORAL Kutxak emandako VISA ORO PARTICULAR edo VISA ORO PRO txartel baten titularra, haren ezkontidea edo erregistro ofizialean egoki inskribatutako izatezko bikotekidea eta lehen mailako ahaide zuzenak, aurrekoak nahiz 18 urtetik beherako ondorengoak, betiere titularrarekin bizi badira eta titularrarekin batera bidaiatzen ari badira. VISA ORO EMPRESA edo VISA BUSINESS ORO txartelaren kasuan, aseguratutzat jotzen dugu Espainian bizi den pertsona fisikoa, LABORAL Kutxak emandako VISA ORO EMPRESA edo VISA BUSINESS ORO txartelaren titularra, haren ezkontidea edo erregistro ofizialean egoki inskribatutako izatezko bikotekidea eta lehen mailako ahaide zuzenak, aurrekoak nahiz 18 urtetik beherako ondorengoak, betiere titularrarekin bizi badira; eta aurretiaz IMA Ibéricari jakinarazitako enpresako langile pertsona fisikoa, Espainian bizi dena, haren ezkontidea eta lehen mailako aurreko nahiz 18 urtetik beherako ondorengo ahaide zuzenak, titularrarekin bizi badira.

ASEGURUAREN EREMUA: Poliza honetan deskribatutako bermeek Espainian, Europan eta mundu osoan jazotako gertaerarako balio dute.

BALIOA: Estalitako bermeez baliatzeko, Aseguratuak ez du 90 egun baino gehiago emango ohiko etxebizitzatik kanpo bidaiara edo joan-etorri bakoitzean.

ESTALITAKO BERMEAK

1. Gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz hoteleko egonaldia lutzatzea

Aseguratuak gerora sortutako gaixotasunen bat (COVID-19a barne) edo istripuren bat izaten badu eta, horren ondorioz, ezin badu bidaiatzen jarraitu, IMA IBÉRICAK hoteleko egonaldia lutzatzearen ondoriozko gastuak ordainduko ditu, egunean 150 €-raino eta gehienez ere 10 egunez.

Beharrezkoa da medikuaren agindua.

2. Gaixoen eta zaurituen lekualdatze sanitarioa

Aseguratuak bidaiari istripuren bat edo gerora sortutako gaixotasunen bat izaten badu, IMA IBÉRICAK bere gain hartuko ditu:

i. Anbulantzia klinikariki edo ospitaleriki hurbilenera eramateko gastuak.

ii. IMA IBÉRICAREN mediku-taldeak beharrezkoak egitea, Aseguratuari arreta ematen dion medikuarekin batera neurririk komenigarrienak zehazteko, beste ospitale egokiago batera edo ohiko bizilekura eraman ahal izateko garraio biderik egokiena zein den finkatzeko.

iii. Aseguratu zauritu edo gaixoa agindutako ospitalera edo ohiko bizilekura garraio biderik egokienean eramatearen gastuak, Aseguratuak bere etxera itzultzeko hasieran kontratatutako eta aurreikusitako bitartekoaren bidez egin ezin duenean.

3. Aseguratutako laguntzaileak lekualdatzea edo garraiatzea

«Gaixoen eta zaurituen lekualdatze sanitarioaren» edo «Gorpuzkien garraioaren» bermea aplikatuz Aseguratuaren bat aberriratu edo lekualdatu egin bada gaixotasunagatik, istripuagatik edo heriotzagatik, IMA IBÉRICAK bere gain hartuko du haiek etxera edo ospitaleratze-lekura garraiatzea.

4. Pertsona bat lekualdatzea, ospitaleratu duten Aseguratuari lagun egiteko

Aseguratuaren egoerak ospitaleratzea eskatzen badu bidaiari izandako istripuren baten edo gerora sortutako gaixotasunen baten ondorioz, IMA IBÉRICAK senitarteko bati txartel bat helaraziko dio, Espainiako bere bizilekutik lagun egin diezaion.

Laburpen hau Aseguratuari eman behar die Poliza-hartzaileak. Erakunde hartzaileak IMA IBÉRICAREKIN sinatutako erreferentziako poliza kolektiboan ezartzen diren kontratu-baldintzen laburpena da, eta, beraz, interpretatzean zalantzarik sortuz gero, horietan xedatutakoa bete beharko da. Aseguratuak Hartzailearen egoitzan izango dute eskura hitzarmen hori. Erreferentziako polizak indarrean dirauen artean eta aldaketarik ez duen artean egongo dira indarrean aseguratutako prestazioak. Poliza azkentzen den unean bertan ezerezatuko dira prestazioak ere. Aseguratutako txartela eman duen erakundeak eskubidea izango du aseguru hau edozein unetan azkentzeko edo aldatzeko.



- 5. Pertsona batek ospitaleratu duten Aseguratuari lagun egiteko egonaldi-gastuak**

Aseguratuaren egoerak ospitaleratzea eskatzen badu bidaian izandako istripuren baten edo gerora sortutako gaixotasunen baten ondorioz, IMA IBÉRICAK hoteleko ostatua ordainduko du egonaldiko gastuen kontzeptupean, 150 €-raino egunean eta gehienez ere 10 egunez.
- 6. Aseguratuaren itzulera aurreratua, senitartekoa hil delako**

Bidaia-egunetan Aseguratuaren senitartekoren bat hiltzen bada, Espainian hilibiratzea egingo den lekura joateko bidaia antolatuko du IMA IBÉRICAK eta hegazkin-txartel bat (turista-mailan) edo tren-txartel bat (lehen mailan) eskuratuko dio Aseguratuari.
- 7. Aseguratuaren itzulera aurreratua, senitartekoa ospitaleratu dutelako**

Bidaia-egunetan Aseguratuaren senitartekoren bat ospitaleratu badute istripu edo gaixotasun larriren baten ondorioz, Espainian ospitaleratze-tokira joateko bidaia antolatuko du IMA IBÉRICAK eta hegazkin-txartel bat (turista-mailan) edo tren-txartel bat (lehen mailan) eskuratuko dio Aseguratuari, horrek gertakariaren berri eman ondoren.
- 8. Aseguratuaren itzulera aurreratua, etxebizitzan edo lokal profesionalen ezbehar larria gertatu delako**

Aseguratuak bidaia eten behar badu, bere ohiko bizilekuan edo lokal profesionalen, Aseguratuak zuzenean ustiatzen edo lanbide liberal bat gauzatzen duen lokalean, ezbehar larria (sutea, lapurreta, uholdea) gertatu delako, IMA IBÉRICAK txartel bat eskuratuko dio, hegazkinean (turista-mailan) edo trenean (lehen mailan) joan-etorria egiteko, Espainiako bizilekuraino.
- 9. Gorpuzkiak aberriratzeta edo garraiatzea**

Aseguratu bidaia batean hiltzen bada, gorpuzkiak Espainian hilibiratuko diren lekura eramateko garraioa antolatu eta bere kargu hartuko du IMA IBÉRICAK.

Gastu horietan sartuta egongo dira hil ondorengo prestaketaren gastuak, lege-betekizunek aurreikusitakoak.
- 10. Gorpuzkiei laguntzea**

Hildako Aseguratuaren gorpuzkiekin bidaiatuko duen inor ez badago, Aseguratuak txartela emango dio kausadunek aukeratzeko duten pertsonari, trenean (lehen mailan) edo hegazkinean (turista-mailan) Espainiatik joan-etorria egiteko, hildako Aseguratuaren gorpuzkiekin batera joan dadin hilibiratuko duten lekuraino.
- 11. Medikamentuak atzerrira bidaltzea**

Mediku batek errezetatutako botika bat behar badu Aseguratuak eta ezin badu eskuratu une horretan dagoen tokian, IMA IBÉRICAK arduratuko da botika bilatzeaz eta Aseguratuari ahalik eta lasterren bidaltzeaz, tokian tokiko legediari jarraikiz.
- 12. Txartelak ordezkatzea, galdu egin direlako edo lapurtu egin dituztelako**

Espainiako entitateek jaulkitako banku-txartelak edo bestelako txartelak lapurtu, ebatsi edo galduz gero, IMA IBÉRICAK arduratuko da, Aseguratuak eskatuta, txartela ezerezteko eta ordezteko eskatzeaz, baldin eta txartela jaulki duen entitateak tramite hori egiteko eskatutako informazio guztia ematen badiu Aseguratuak.

Dena dela, ezinbestekoa izango da agintaritzaren eskudunen aurrean salaketa jartzea. Estalduraren muga: 175 €.
- 13. Atzerriko bidaian zehar pasaporte galdu edo lapurtzea**

IMA IBÉRICAK bere gain hartuko ditu pasaporte ordezkatze gestio- eta eskuratzeko-gastuak (behar bezala justifikatuak), gehienez ere 600 €-ko mugarekin, baldin eta atzerriko bidaian Aseguratuak galdu egin badu edo lapurtu egin badiote. Estaldura honetatik kanpo daude —eta, beraz, ez da kalte-ordainik ordainduko— pasaporte galtzearen edo lapurtzearen ondorioz edo hirugarren pertsonen bidegabe erabiltzearen ondorioz gertatzen diren kalteak.
- 14. Premiazko mezuak helaraztea (bermeen ondoriozkoak)**

IMA IBÉRICAK arduratuko da Aseguratuak transmititu behar dituzten presako mezuak helarazteaz, betiere hori egiteko beste baliabiderik ez badute eta kontratuak estalitako berme baten ondorioz badira.
- 15. Informazio Zerbitzua**

IMA IBÉRICAK doako eta etenik gabeko 24 orduko zerbitzua eskainiko du, urteko egun guztietan, turismoari, formalitate administratiboari, bidaia-baldintzei, tokiko bizitzari, garraio bideei, ostatuei eta jatetxeei buruzko informazioa emateko Aseguratuari.
- 16. Ohiko bizilekuko giltzak galtzea edo lapurtzea**

Aseguratuak etxean sartzeko sarrailagile baten zerbitzuak kontratatu behar baditu bidaiatik bueltan, bidaian dagoela ohiko etxebizitzako giltzak galdu dituelako edo lapurtu dizkiotelako, IMA IBÉRICAK bere gain hartuko ditu sorturiko gastuak, gehienez ere 90 €-ko mugarekin, dagokion faktura aurkeztu ondoren.
- 17. Kutxa gotorak eta segurtasun-kutxak irekitzeko eta konpontzeko gastuak**

IMA IBÉRICAK kutxa gotorak eta segurtasun-kutxak irekitzeko eta konpontzeko gastuak itzuliko dizkio Aseguratuari, gehienez ere 100 €-ko mugarekin, baldin eta giltza galdu duelako ostatua eman dion hotelak gastu horiek kobratu badizkio eta dagozkion egiaztagiriak aurkeztu baditu.
- 18. Atzerrian diru-funtsak aurreratzea**

Txartelak galtzearen edo lapurtzearen ondorioz Aseguratuak ezin badu bidaia jarraitu, IMA IBÉRICAK gehienez 2.500 € aurreratuko dizkio.

IMA IBÉRICAK abala edo bermea eskatuko dio Aseguratuari, aurreratutako dirua itzuliko diola ziurtatzeko.
- 19. Gastu medikoak**

Bidaian zehar gerora sortutako gaixotasunen bat (COVID-19a barne) edo ustekabeko istripuren bat izaten badu Aseguratuak, IMA IBÉRICAK gehienez 20.000 € bermatuko ditu atzerrian, gastu medikoei, kirurgikoei eta ospitalekoiei aurre egiteko.
- 20. Odontologia-gastuak atzerrian**

«Gastu medikoen» bermea gauzatzen denean, larrialdikotzat jotzen diren odontologia-gastuak estaliko ditu IMA IBÉRICAK, gehienez ere 750 €-ko mugaraino, kanpo utzita endodontziak, aurreko tratamenduei dagozkien berregite estetikoak, protesiak, zorroak eta inplanteak.
- 21. Atzerrian ordaindu beharreko fidantza penalaren zenbatekoa aurreratzea**

Aseguratu atzerrian gertatutako auto-istripu baten ondorioz atxilotu edo auzipetzen badute, IMA IBÉRICAK lekuan lekuko agintariek eskatutako fidantza penalaren zenbatekoa aurreratuko dio, gehienez ere 6.000 €-ko mugarekin.
- 22. Atzerriko laguntza juridikoetan sortutako gastuak aurreratzea**

IMA IBÉRICAK abokatuaren zerbitzu-sarien aurrerapena bermatuko du, gehienez ere 900 €-ko mugarekin, baldin eta Aseguratuak bere defentsa legalerako abokatu kontratatu behar badu ohiko bizilekuko edo nazionalitateko herrialdetik kanpo, zirkulazio-istripu baten ondorioz.
- 23. Hasi gabeko bidaia bertan behera uzteak eragindako gastuak**

IMA IBÉRICAK bermatzen du Aseguratuaren kargura egindako bidaia ezerezteko gastuak itzuli egingo dituela, gehienez ere 900 €-ko mugarekin, baldin eta Aseguratuak hasi aurretik ezerezten badu bidaia, kontraturiko egunetan bidaiatzea galarazten dion arrazoiren bat dagoelako. Arrazoi horiek jarraian zehaztuko ditugu:

 - a) Honako hauen gaixotasun larria, istripu larria edo heriotza: Aseguratu, ezkontidea, aurrekoak, odolkidetasun edo ezkontza-ahaidetasuneko hirugarren mailarainoko ondorengoak eta/edo Aseguratuaren ordezko profesionala —betiere behar-beharrezkoa bada kargu edo erantzukizun hori Aseguratuak hartzea—.
 - Sartuta dago bidaia bertan behera uztea, Aseguratuak bidaia eta aseguru kontratatu ondoren COVID-19a hartu duelako eta aurreikusitako egunetan bidaiatu ezin duelako.
 - Sartuta dago bidaia bertan behera uztea, bidaia eta aseguru kontratatu ondoren Aseguratuaren senitarteko bat COVID-19agatik hil delako eta Aseguratuak aurreikusitako egunetan bidaiatu ezin duelako.
 - b) Lapurretaren, sutearen edo bestelako oneraren ondoriozko kalte larriak Aseguratuaren ohiko bizilekuan edo lokal profesionalen,

Laburpen hau Aseguratuari eman behar die Poliza-hartzaileak. Erakunde hartzaileak IMA IBÉRICArekin sinatutako erreferentziako poliza kolektiboan ezartzen diren kontratu-baldintzen laburpena da, eta, beraz, interpretatzean zalantzarik sortuz gero, horietan xedatutakoa bete beharko da. Aseguratuak Hartzailearen egoitzan izango dute eskura hitzarmen hori. Erreferentziako polizak indarrean dirauen artean eta aldaketarik ez duen artean egongo dira indarrean aseguratutako prestazioak. Poliza azkentzen den unean bertan ezereztuko dira prestazioak ere. Aseguratutako txartela eman duen erakundeak eskubidea izango du aseguru hau edozein unetan azkentzeko edo aldatzeko.



betiere Aseguratua lanbide liberal bat badu edo haren zuzeneko ustiatzailea bada, eta halaber behar bera bertaratu behar bada.

c) Aseguratua lanetik kaleratzea diziplinazkoa ez den arrazoiengatik, betiere aseguruaren hasieran ez badago ahozko edo idatzizko komunikaziorik.

d) Aseguratua beste enpresa bateko bestelako lanpostu batean lanean hastea, lan-kontratu bidez, baldin eta langilea aseguru atxiki ondoren sartu bada eta bidaiaren erreserbatu zen egunean horren berri ez bazuen.

e) Aseguratuari Auzitegi Zibil, Penal edo Laboral batean alderdi, lekuko edo epaimahaikide gisa parte hartzeko deitzea. Kanpo geratzen dira bidaiaren eta aseguruaren kontratatu aurretik hasitako prozesuengatik Aseguratuari inputatu gisa deitzen zaion kasuak. Gainerako agerraldietarako, bidaiaren eta aseguruaren kontratatu ondorengo izan beharko da deia.

24. **Hasitako bidaiaren etetea**

Hasitako bidaiaren eten egin bada polizak estalitako ezbehar baten ondorioz, eta IMA IBÉRICAK Aseguratua alde aurretik jakinarazi bada, IMA IBÉRICAK Aseguratua konpentsatuko du ordaindu behar dituen eta baliatu ezin dituen kontrataturiko lurreko zerbitzuengatik, gehienez ere eguneko 150 €-ko mugarekin eta 8 eguneko gehienez.

Aseguratuak egonaldiaren ostaturako kontratatu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, dirua itzultzeko.

25. **Bidaiaren irteera atzeratzeak sorturiko gastuak**

Garraio bide publikoaren irteera 6 orduetik gora atzeratzen bada, IMA IBÉRICAK bermatzen du atzerapena gertatu den lekuan sortutako benetako eta beharrezko gastuak (hala nola aparteko ostatu-, mantenu- edo garraio-gastuak) itzuliko dituela, jatorrizko fakturak eta garraio-enpresak emandako atzerapenaren jatorrizko egiaztagiria aurkeztu ondoren. IMA IBÉRICAK gehienez 150 € itzuliko ditu, eta beste 150 € gehiago 6 orduko denbora-tarte bakoitzeko, guztira gehienez 900 €-ko mugarekin.

26. **«Gainerreserba» eta zerbitzu-aldaketak eragindako gastuak**

Aire-garraiolariak hegazkinean benetan dauden lekuak baino gehiago kontratatu baditu (gainerreserba egin bada) eta horren ondorioz garraio bidea berandu irten bada, eta garraio-enpresak arrisku hori estaltzen ez bada, IMA IBÉRICAK gehienez 100 € itzuliko dizkio Aseguratuari, premia biziko gastuak ordaintzeko, eta beste 100 € 4 orduko denbora-tarte bakoitzeko, 200 €-ko mugarekin. Horretarako, baina, Aseguratuak jatorrizko fakturak aurkeztu beharko ditu.

27. **Greba baten ondorioz bidaiaren abiatzeko garraio bidea ezerezteak eragindako gastuak**

Aseguratuak aukeratutako garraio bide publikoaren irteera ezereztu egin bada grebaren edo gatazka sozialaren ondorioz, IMA IBÉRICAK gehienez ere 300 € ordainduko ditu, Aseguratuak etxera itzultzeko egin beharreko garraio-gastuen kontzeptupean, jatorrizko fakturak aurkeztu ondoren.

28. **Hegaldien konexioa galtzearen ondoriozko gastuak**

Aseguratuarekin zerikusirik ez duten eta aire-konpainiari egoztekoak diren arrazoiaren ondorioz galdu egiten bada aurreikusitako hegaldien konexioa, eta horren ondorioz Aseguratuak 6 ordu baino gehiago itxaron behar bada, IMA IBÉRICAK konexioa galdu den lekuan egindako benetako eta beharrezko gastuak itzuliko dizkio, gehienez ere 150 €, eta beste 150 € gehiago 6 orduko denbora-tarte bakoitzeko, guztira gehienez 900 €-ko mugarekin. Horretarako, baina, Aseguratuak jatorrizko fakturak aurkeztu beharko ditu.

29. **Ekipajea bilatu eta aurkitzea**

Aseguratuaren ekipajea galdu egiten bada edo ez bada garaiz iristen, IMA IBÉRICAK lagundu egingo dio hura bilatzen eta aurkitzen, eta aholku emango dio dagokion salaketa jartzeko izapideak egin ditzan.

30. **Fakturatuak ekipajea galdu, hondatu edo lapurtzea**

Fakturatuak ekipajea bidaiaren zehar behin betiko galtzen bada, edo larri hondatu edo lapurtu, garraio-enpresari egozteko den arrazoi baten ondorioz, objektu bakoitzeko 250 €-rainoko kalte-ordaina ziurtatzen du IMA IBÉRICAK, gehienez 2.500 €-ko mugarekin.

31. **Atzerapena ekipajea entregatzean**

Fakturatuak ekipajea entregatzeko orduan atzerapen baten badago garraiolariaren erruz, eta atzerapen hori 12 orduko baino gehiagokoa bada edo tartean gau bat badago, IMA IBÉRICAK itzuli egingo ditu atzerapena gertatu den lekuan premia biziko gauzak erosteko egindako gastuak, gehienez ere 1.000 €-ko mugarekin, jatorrizko fakturak, jatorrizko ontziratze-txartela eta garraio-enpresak emandako jatorrizko atzerapen-egiaztagiria (entregatzeko eguna eta ordua zehazten dituen) aurkeztu ondoren.

32. **Dokumentuak eta objektu pertsonalak atzerira bidaltzea**

IMA Ibéricak antolatuko du, eta bere gain hartuko, bidaiarako ezinbestekoak diren eta etxean ahaztuta utzi diren objektuak bidaltzearen gastua; hauek dira objektuak: lentillak, protesiak, betaurrekoak, kreditu-txartelak, gidabaimena, NANA eta pasaporteak.

33. **Etxeko laguntza aberriaritze-kasuan**

Aseguratuak Aseguratua aberriaritze baten badu eta beharrezkoa bada 48 orduko gorako ospitaleratzea edo ohiko bizilekuan 5 egunetik gora immobilizatuta egotea, Aseguratuak antolatuko eta bere gain hartuko ditu hauek:

33.1 **Etxeko laguntzaileak**

Aseguratuak etxeko laguntzako zerbitzua antolatu eta laguntzaile baten kostua bere gain hartuko du, Aseguratuari ohiko bizilekuko oinarrituko zereginetan laguntzeko (garbiketa, ikuzketa eta lisaketa, otorduak prestatzea eta abar), gehienez ere 30 orduko mugarekin (gutxienez 2 ordu jarraian eguneko), aberriaritzea gertatu den egunetik zenbatzen hasita.

33.2 **Lagun egiteko etxeko animaliak (txakurrak eta katuek) zaintzea**

Lagun egiteko etxeko animalien (txakurren eta katuen) garraioa eta ostaturako antolatu eta haren kostua bere gain hartuko du Aseguratuak, lehen egunetik hasita, aberriaritzea gertatu eta hilabeteko epean.

33.3 **16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasunen bat dutenak zaintzeko etxeko laguntzako laguntzaileak**

Aseguratuak etxeko laguntzako laguntzailearen zerbitzua antolatu eta haren kostua bere gain hartuko du, 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasunen bat dutenak zaintzeko eta artatzeko, gehienez ere 30 orduko mugarekin (gutxienez 2 ordu jarraian eguneko), aberriaritzea gertatu den egunetik zenbatzen hasita.

33.4 **Laguntza pertsonala**

Aseguratuak laguntza pertsonaleko laguntzaile baten aurkitzea, bidaltzea edo ordaintzeko zereginak antolatu eta bere gain hartuko ditu IMA IBÉRICAK, hark zaintza pertsonalak behar dituzten —etxeko lanak ez dira sartzen—, gehienez ere 30 orduko mugarekin —gutxienez 2 ordu jarraian eguneko—, lehenengo egunetik zenbatzen hasita.

Bermeak zerrenda honetako prestazioak eskaintzen ditu:

- Higiean, apainketa pertsonalean, dutxatzen eta/edo bainatzen laguntza
- Arropak eta oinetakoak jantzeko eta elikatzeko laguntza pertsonala
- Etxe barruko transferentziak, lekualdaketak eta mobilizazioa
- Elikagaiak ahoz jartzeko laguntza
- Osasun-zentroak agindutako medikazioa hartzeko laguntza
- Inkontinentzia dutenen oinarrituko zaintzak
- Higiean- eta ordena-ohiturak sustatzea

ESKLUSIO NAGUSIAK

Polizak ondorengo esklusioetako batzuk izan ditzake, besteak beste: Aseguru-bermeetatik kanpo daude (bermean berariaz jasota ez badaude) arrazoi hauek direla eta gertatutako kalte, egoera, gastu eta ondorioak:

1. Hartzaileak, Aseguratuak, onuradunak edo horien kausadunak egindako dolozko ekintzak.

Laburpen hau Aseguratuari eman behar die Poliza-hartzaileak. Erakunde hartzaileak IMA IBÉRICAREkin sinatutako erreferentziako poliza kolektiboan ezartzen diren kontratu-baldintzen laburpena da, eta, beraz, interpretatzean zalantzarik sortuz gero, horietan zehaztutakoak bete beharko dira. Aseguratuak Hartzailearen egoitzan izango dute eskura hitzarmen hori. Erreferentziako polizak indarrean dirauen artean eta aldaketarik ez duen artean egongo dira indarrean aseguratutako prestazioak. Poliza azkentzen den unean bertan ezereztuko dira prestazioak ere. Aseguratutako txartela eman duen erakundeak eskubidea izango du aseguru hau edozein unetan azkentzeko edo aldatzeko.



2. Gaixotasun kronikoak edo aurretikoak, salbu eta «gastu medikoen» bermean adierazitakoak.
3. Poliza indarrean sartu aurretik gertatutakoak.
4. Edari alkoholdunak, substantzia sorgogorriak, drogak edo medikamentuak kontsumitzeagatik sortutako gaixotasun, istripu edo egitateak. Medikamentuen kasuan, ez da eskusiorik ezarriko sendagileak agindutakoak badira.
5. Gerrak, manifestazioak, matxinadak, herri-mugimenduak, terrorismo-egintzak, sabotajeak eta grebak.
6. Atomo-nukleoaren eta partikula atomikoak artifizialki azeleratzeak eragindako erradiazioen transmutazioa.
7. Lurrikarak, uholdeak, sumendien erupzioak eta, oro har, naturaren indarrek eragindakoak.
8. Aseguratuak bere burua hiltzea, bere buruaz beste egiten saiatzea edo bere burua zauritzea.
9. Atmosferako poluzioak eta/edo kontaminazioak sorturiko gaixotasunak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

IMA IBÉRICA ez ditu bere gain hartuko eskatu ez zaizkion eta berak adostuta edo bere adostasunarekin egin ez diren berme eta prestazioak, ezinbesteko kasuetan edo frogatzeko ezintasun materiala dagoenean izan ezik.

Zerbitzuak ematean IMA IBÉRICA zuzenean esku hartu ezin badu, Aseguratuari itzuli beharko dizkio polizak estaltzen dituen zerbitzu horien ondoriozko gastuak —behar bezala egiaztatutako—, gehienez ere 40 eguneko epean, aurkezten direnetik zenbatzen hasita.

Edonola ere, IMA IBÉRICA eskubidea izango du Aseguratuari dokumentuak edo arazoizko frogak eskatzeko, prestazioa ordaindu ahal izateko.

Erantzukizun Zibileko Aseguru Osagarria

Erantzukizun Zibil Pribatuko Berme Osagarria

IMA IBÉRICA bere gain hartuko ditu diruzko kalte-ordainak, gehienez ere 30.000 €-ko mugarekin, Kode Zibilaren 1.902tik 1.910era bitarteko artikuluen edo atzerriko legedietan aurreikusitako antzeko xedapenen arabera Aseguratuari eskatu ahal zaizkionak —nahiz eta erantzukizun zibilaren zehapen pertsonal edo osagarria ez izan—, erantzukizun zibileko aseguru honek osatzen duen bidaiako laguntza-aseguruan estalitako bidaiaren hirugarrenei, animaliei edo

gauzei nahi gabe eragindako gorputz-kalteen edo kalte materialen erantzule zibil gisa.

Muga horren barruan sartuko dira judiziozko kostu eta gastuak, bai eta Aseguratuari galdatzen zaizkion fidantza judizialak eratzea ere.

Erantzukizun zibileko bermearen inguruko eskusioak

Berme honek ez ditu estaltzen:

1. Ibilgailu motordunak, aireontziak eta itsasontziak gidatzeagatik edota suzko armak erabiltzeagatik Aseguratuak aurre egin beharreko edozein erantzukizun.
2. Jardunbide profesionalaren, sindikalaren, politikoaren edo elkartzekoaren ondorioz sortutako erantzukizun zibila.
3. Edozein auzitegi edo agintaririk ezarritako isunak eta zehapenak.
4. Kirol profesionalak eta modalitate hauek —zaletu gisa bada ere— praktikatzearen ondoriozko erantzukizuna: alpinismoa, boxeoa, bobsleigha, espeleologia, judoa, parakaidismoa, delta hegala, motorrik gabeko hegaldia, poloa, errugbia, tiroa, yachtinga, arte martzialak eta ibilgailu motordunekin egiten direnak.
5. Edozein izaerarekin Aseguratuari utzitako objektuei eragindako kalteak.
6. Kontratuzko edozein erantzukizun; Aseguratuak nahita, maltzurkeriaz edo legez kanpo egindako edozein ekintza; Aseguratuaren zaintzapean edo kontrolpean dauden animalien ondoriozko erantzukizuna, eta lurraireneko erakinen jabetza edo okupazioa.
7. IMA IBÉRICA onespina eman baino lehen sortutako kostu edo gastuak —ez ditu arrazoirik gabe ukatuko—. IMA IBÉRICA eskubidea izango du, bere onspina edozein unetan kentzeko eta aparteko gastuen erantzule izateari uzteko.
8. Beste aseguru baten bidez berreskura daitekeen edozein galera ekonomiko. Beste aseguru baten bidez berreskuratzen bada zati bat, berme honek kalte-ordainaren gehieneko mugarainoko aldea estaliko du.